

Julia Fernandez Zabaleta eta Katalina Alastuey, emakume aitzindariak

Josu Chueca

Sarrera:

Aspaldidanik jakina da Klio historiaren jainkosak eremu aunitz umezurtz utzi dituela ikerketa munduan. Zientzia honek gizarateak dituen funtsa politiko-ideologikoak isladatzen dituelako, inolako ezbairik gabe, esparru historiografiko baztertuenen artean ere emakumezkoarena dugu. Izan ere korronte guztietako lan historiografikoek, orain dela gutxi arte, emakumeek osatzen duten biztanlegoaren erdia ixiltasunera zokoratu dute.

Estatu espainiarrak jasandako diktadura frankista zela medio, egoera hau larriagotu egin zen erregimen berezi honek iraun zuen bitartean. Hutsune historiografikoaz gain, frankismoaren morroiek idatzitako saio alderdikor bezain bihurriak aintzakotzat hartu behar ditugu estatu espainiarrean gorpuztu izan den sasihistoriaz jabetzeko.

Izan ere, 1936.eko gerrako etendura suertatu arte, gauzatu izan ziren mugimendu eta fenomeno gizapolitiko zein kulturalak diktaduraren bitartean garatutako historiografiak baztertu edota desitxuratu zituen. Hau dela medio, gizaldi askotan zehar, emakumeen gainera eroritako giza-zientzien madarikazioa haunditurik suertatzen da emakume hauek zenbait korronte politiko zehatzen partaideak baldin badira.

Hauxe da alderdi ezkertiar edota erakunde abertzaleetan ihardun zuten emakume askoren adibide dohakabea. Hutsaren hurrengo bailiran bere biografiak, lanak eta idealek, neurri handi batean, ezagutu eta ikertu gabe dira.

Euskal Herriari dagokionez, azken urteotan egindako ikerketei esker, gaur egungo historia gero eta ezagunagoa izan arren¹,

1. Azken urteotan gorpuztu diren eta gorpuzten ari diren ikerketei esker emakumeekiko ixiltasuna deuseztatzen ari da. Errate baterako, ondoko lerroekin ze-

oraindik arazo, aspektu eta pertsona aunitz jorratu gabe ditugu. Hala ere inork ez du ukatuko benetako iraganaren ezagutza bermatzeko lan historikoetatik kanpo gelditu direnak errekuperatu behar ditugunik. Eta hori da, hain zuzen ere, gu ondorengo lerroetan egiten saiatu izan garena bi emakume nafarrekin, Julia Fernandez Zabaleta eta Catalina Alastueyrekin zehazki, gure herriko historiak berreskuratu behar dituelakoan gaudelako.

JULIA FERNANDEZ ZABALETA ETA KATALINA ALASTUEYRI BURUZKO ZERTZELADA BIOGRAFIKO BATZUK

Julia Fernandez Zabaleta Iruñean sortu zen 1898.eko urriaren 9an. Bere gurasoak Valentin eta Concepcion, Mendigorria eta Ziraunikokoak zituen. Aita, musika irakaslea izanik, oso gazte iruñeratu zen bere ogibideari ekiteko asmoz². Julia ez ezik, bertze seme bat ere izan zuten, aita bezala Valentin izena izan zuena, hain zuzen ere. Hau, zuzenbideko ikasketak burutu eta gero, Iruñean, legegizon bezala aritu zen 1936.eko gerratea iritsi bitarte. Gatazka hau lehertu zenean, militante jeltzale amorratua zelakotz atzerrira joan behar izan zuen, Mexikon, urte asko igaro ondoren, hil zelarik.

Katalina Alastuey Garaikoetxea ere iruñarra zen. 1899.eko abenduaren 26. ean jaioa. Ez dugu daturik bere aitari buruz, bai ordea amari buruzkoak. Honek Romana zuen izena eta sortzez gartzaindarra zen. Biak elkarrekin bizi izan ziren Iruñeko Blanca de Navarra kalean³.

Bai Juliak, bai Katalinak magisteritza ikasketak egin zituzten, San Jose plazan zegoen ikastetxean. 1916.era karrera amaitu zuen Julia Fernandez-ek eta urte honetan Iruñeko udalari, Bartzelonara

rikusi haundia dituzten lanak hagitx berriak izateaz gain, gero eta ugariagoak ditugu. Ezbairik gabe mamitsuena, Mercedes Ugaldere tesia LAS MUJERES NACIONALISTAS VASCAS EN LA VIDA PUBLICA; GESTACION Y DESARROLLO DE EMAKUME ABERTZALE BATZA, 1906-1936. (EHU, Bilbo, 1994) da. Ikerlari honek ere, lehenagotik EABri buruz bertze zenbait lan argitaratu zituen: “Las mujeres en el nacionalismo vasco durante la II República: Esquema metodológico” in LA MUJER EN LA HISTORIA DE ESPAÑA (XVI-XX); “Emakume Abertzale Batza en la II República en Navarra” in I CONGRESO DE HISTORIA DE NAVARRA (XVIII-XIX-XX). Guk ere zenbait lan idatzi ditugu gai honi loturik: “Mujeres en la retaguardia nacional. El caso de Navarra” in LAS MUJERES Y LA GUERRA CIVIL ESPAÑOLA (Madril, 1991) “Josefina Irujo, Emakume baten ibilbide eta textuinguru historikoa” in NAZIOARTEKO KONGRESUAREN AKTAK. (Donostia, 1993)

2. Iruñeko 1935.eko erroldaren arabera.

3. Ibidem.

joateko laguntza bat eskatu zion, Maria Montessori pedagogo italiarrak, bere korronteko pedagogiaz antolatu zuen ikastaro batean parte hartzeko asmoz. Udaleko laguntza eskuratu eta gero, eginbehar horretan otsailetik maiatza bitartean aritu zen. Katalunyatik itzuli zelarik, hor ikusi eta ikasitako guztiaz, txosten mardula idatziz zuen Iruñeko udalerako Maria Montessoriren eredu pedagogikoak goraiapatuz⁴.

Katalina Alastueyri dagokionez, magisteritzako ikasketak amaitu eta gero, bertze maistrekin bat eginez, “Asociación de Antiguas Alumnas de la Normal de Pamplona” zeritzan elkarteak sortarazi zuen⁵. Ordurako, eta Julia Fernandez bezala, Udalak zituen San Frantziskoko eskoletan sartua zen “unitaria de niñas” deitutako sailean aritzeko. Ardura honetan ihardun zuten biak 1936-1937.eko ikasturtera arte gerra zela medio “desafectos al regimen” izatearen akusazioaren pean karguz desjabetuak izan zirelarik⁶.

EMAKUME HAUEN IDEIAK...

Urte hauetan irakaskuntza mailan mugitzen baziren ere, pixkanaka-pixkanaka, bertze ekintza publikoetara hurbiltzen hasi ziren. Errate baterako, 1923.ean, Julia Fernandez Zabaletak Euskaltzaindiak Donezteben antolatu zituen “Euskal Egun”etan parte hartu zuen⁷. Mintzaldi laburra burutu zuen arren, berak euskararekiko zuen atxikimendua, euskaltzain eta doneztebarren aurrean, argi eta garbi plazaratu zuen. Euskarari dagokionez, jendeak zuen utzikeria salatzeaz gain, mintzaira honetan kokatzen zuen Julia Fernandezek gizaki euskaldunen ongitasuna erranez: “Gure anima eta gorputzeko ondasunak, gure aberastasunak, gure eskubideak gorde nai baditugu izan gaitezen euskaldun zintzoak”⁸.

4. Ikus Guibert Navaz M. E. “La mujer como educadora de párvulos. La influencia de María Montessori en las escuelas municipales de Pamplona” in MUJER Y EDUCACION EN ESPAÑA 1868-1975. Santiago, 1990.

5. Nafarroako Artxibo Nagusia. Sail administratiboa. Kontseilu foralaren leg. 1935.eko Hauteskundeetako elkarteen erroldarena.

6. Ikus B.O.N. 1936.eko abenduaren 9.ekoa. Burgosko Gobernu militarrek agindutakoaren arabera Iruñeko udalak 40 langile beraien lanpostuez desjabetu zituen behin betiko. Bertze 53 langilek aldiko zigorrak jasan zituzten. Orduko giroa antzemateko oso egokitzat jotzen dugu Fermin Irigarai “Larreko”ren GERLA URTE GEZUR URTE. Iruñea, 1994. Bertzeaz bertze berak kontatzen du jasan behar izan zuen itaunketa.

7. Ordurako bera Jesús Arantxadik, Iruñean zuzentzen zuen “Euskal Kate-dra”ko ikaslea zen.

8. Ikus GURE HERRIA, 1923, 631-633 orr.

Garrantzitsuagoa eta mamitsuagoa izan zen hurrengo urtean, Donostian, 1924.eko abenduaren hamalauan emandako hitzaldia, “Emakumearen Etorkizuna” izenburua zeukana hain zuzen ere. Honen bitartez, Julia Fernandez emakumearen inguruan zeuden eztabaidetara hurbiltzen saiatu zen. Berak azaldutako ideia nagusiak horrela laburbil ditzakegu:

– **Emakumezkoa gizona bezain gauza da edozein ardua eta egingizuni ekiteko.** Bukatu berria zen lehen gerrate europarra adibidetzat hartuz bi sexuen ahalmenak parekatzen zituen: “Pantze ta Alemanian gizon geyenak gudara joan ziranean, emakumeak artu zituzten ayen lanak; emakumeak joan ziren lanoletara, emakumeak saltokietara, emakumeak egin ziran lantokietako zuzendari, ta emakumeak lurrak landu zituzten. Europako gizonak eriotzara erroitu zituzten artean, emakumeak zalantza gabe, ostetasun gabe, beren soingañean bota zuten bizibideko zama. Ori jakinda ¿nork zalantzatzen du emakumeak bizi azke bat lortu dezakela?”.

– **Emakumeek, lan eta hezkuntz eskubidea izan behar dute.** “Emakumeari ez dagokio ezkontza baten zain egotea. Emakumeak lana eskuratu behar du, eta ez edozein eratara ordaintzen den lana, ongi saritua izanen dena baizik. Gauza bera hezkuntari begira. Gizona bezain prestua delako edozein ikasketa aurrera eramateko eta nolabaiteko independentzia ekonomikoa izan dezan beharrezkoa da hezkuntzaz baliatzea”.

Gogoeta orokor hauek egin ondoren, era zehatzago batez aztertzen zituen emakume euskaldunaren egoera zein eginbeharrak. Iruñeko maistraren arabera, antzinako ohitura eta aurrerapidearen arteko bidegurutzean emakume euskaldunak hartu behar zituen erabakiak ziren: “euskaldunagoa egin dezaketenak, bere iza-kera harrigarria obetu dezaketenak, euskalherriaren itxaropen dan ama obetuko dutenak”.⁹ Berarentzat euskal gizaki eta abendak dituzten alde onak emakumezkoengan handiago eta sakonago gauzatzen dira: “Sarri gertatu oi danez abendaren izakerako era batzuek, emakumeetan gizonetan bano agirigo jartzen dira” Hau zela eta herriaren onerako, maistra iruñarrak erreibindikatzeko zuen emakumeek bakarrik eremu pribatuetan erabiltzen zituzten bertuteak arlo publiko guztietara eramatea. Bere hitzekin erranda: “Emakume euskalduna berez onelakoa baldin bada, oldoztu deza-

9. Ikus Julia Fernandez Zabaleta “Emakumien Etorkizuna” in ITZALDIAK, 143-167 orr. Donostia, 1926.

gun zer izango ote litzaken asmo haundi baten aldera, bere herriaren aunditasunaren aldera ubidetuko bagenu”.

Gizarte mailan emakumeek egin zezaketen lana, desagertzen ari ziren herri baten ezaugarriei eusteko bideratu behar zela pentsatzen zuen Julia Fernandezek. Orduko jeltkide guztien erara, Euskal Herriaren hiltzoria euskera eta bertako ohituren atzerakadan antzematen zuen. Bi osagai hauek ziren herriak zituen ezinbertzeko funtsak. “Euskera eta oiturak galtzen dijoaz, erria gaizurre dago eta gaitz oien zuztarrak gure biguinkeri ta ajolagabetasunean daude. Gure oitura ta gure izkuntza utziaz bestien oiturak ta izkuntza artzen ditugu. Eta ala gaur erri batek eta biar beste batek, euskaldunen izakera galtzen dute, izkuntza aldatzen duan erriak gogoa ere aldatzen du eta”¹⁰.

Prozesu tamalgarri honen kontra borrokatzeko oso premiazko zat jotzen zuen irakaskuntza ezberdin bat garatzea. Bizkaian dagoeneko martxan zeuden auzo ikastetxeen eredia zabaltzearen aldekoa zen. Behin behineko pausoa zen ume euskaldunak irakasle euskaldunak izan zitezten: “Aur euskaldunak berai dagozkien bezalako aziera eta ikaskizunak irakasle euskaldun bat, bere gogora, bere adimenera, bere naimenera, ta batez ere biotzeraino sartuko litzakeen irakasle bat”. Baina, honez gain haurrari bere inguru oro, hala geografiko nola afektiboa irakatsi eta sentiarazi behar zitzaion. Horretarako pedagogia mailan gauzatu behar ziren aldaketak edukin zein metodologiari begiratu behar zioten: “gure ikastoletan asko eta ederki abestu behar da bait ere dantzatu behar da, ta gure dantzak erakutsi. Abestiak, dantzak, ipui euskaldunak, erriko lutelestia, euskaldun ospetsuen bizitzen berri, euskalerriko edestiya... ori guziya ikastetxean erakutsi bear litzake”¹¹.

... ETA LANAK

Horrelako ideiak luzaro gelditu ziren praktikan paratu gabe. Bizkaian, arestian aipatu ditugun “Escuelas de Barriada” delako esperientzia oso goiz martxan jarri bazuten ere, Nafarroan, ez zen horrelako inizatibarik izan bigarren Errepublika iritsi arte. Erregimen hau abagadune egokitzen jo zuten euskaltzale guztiek inizatiba aunitz aurrera eramateko, haien artean ikastolena edo herri kulturaren adierazpen desberdinen bultzadarena. Ekimen hauetan, emakume hauek burutu zuten lana izugarritzkoa izan zen.

10. Ibidem.

11. Ibidem.

1931.eko apirilak ireki zuen aro politiko zein ideologiko berrian emakumezkoen erakundeak, bai eskuinekoak, bai ezkertiarak sekulan baino gehiago ugaldtu ziren. Aktibitate politikoetan parte hartuz. Emakumeek osatzen zituzten elkarteek arreta berezia eskaini zieten zenbait esparruri, hala nola: kultura, laguntzeko aktibitate eta gazteriarenganako proselitismoari.

Ildo honetatik euskal nazionalismoak 1921.ean Bizkaian sortu zuen erakundea Emakume Abertzale Batza deitutakoa Erregimen errepublikarra aldarrikatu bezain laister birsortu zuen. "Euzkadi" egunkarian kaleratutako dei baten bitartez¹², maiatzaz geroztik, batzorde batek antolatu zituen lehen bilkurak. Primo de Riveraren diktadura iritsi arte Emakume Abertzale Batza Bizkaia mailan egituraturik bazen ere, 1931z geroztik Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetara hedatu zen.

Nafarroari begiraturaz garapen nahiko sendoa izan zuen erakunde berri honek. Lehen elkarteak Iruñean jaio zen urte horretako urriaren 23.ean. "Amayur" aldizkari abertzalean azaldutako "A la Mujer navarra" izenburua zeukan deiak emakume nafar guztiak gomitatzen zituen elkarte berrian parte hartzeko. Manifestu honek Bilboko emakume abertzaleek ateratakoaren puntu nagusiak testualki isladatzen zituen. Honez gain, dei berezi bat Nafarroako emakumeentzat burutzen zuen erranez: "Emakume nafarra, zure animaren sakonean abendaren gogoia sentitzen duzuna, erlijiozko sentimenduak zure bizitza osoa eratzen dizuna, umetatik maite duzun Jaungoikoa zuen seme-alaben itzaropena izatera nahi duzuna eta Foruen hitzak zirrara sortzen dizuna, emaiotzu zuen izena eta kemena erakunde honi. Pentsa ezazu dena arriskuan dagoenean, erlijio bat salbatu beharra dagoenean, etxe bat defenditu, hizkuntza bat gorde eta eskubide batzuk berreskuratu behar ditugunean ez bai oro koldarkeria dela. Denok bat gure abendaren alde, Jaungoikoa eta gure askatasunen alde"¹³.

Deialdia eraginkorra suertatu zen oso zeren astebete beranduago "Centro Vasco"ko aretoan egindako biltzar orokor batean, Emakume Abertzale Batzaren lehen elkarteak martxan jarri zuten, bere lehen buruzagiak hautatuz. Haien artean, goreneko ardurei eutsiz, Julia Fernandez Zabaleta eta Katalina Alastuey zeuden. Julia lehendakaria zen bitartean, Katalina bere ordezkaria hautatu zuten bildutako emakumeek. Hurrengo urteotan bertze bazkide

12. "Euzkadi" 18-VI-1931.

13. "Amayur", 22. zenb. 1931.eko urriaren 17a.

batzuek - Maria Salvatierra, Isabel Legaz...- lehendakaritzaren ardura hartu zuten arren, talde zuzendari orotan, Julia Fernandez Zabaleta eta Katalina Alastuey idazkari edota diruzainaren eginbeharreran aritu ziren Iruñeko talde buruzagiaren jarraikortasunaren haria bermatuz.

Lehen urratsa buruturik zegoen. Orduz geroztik, Nafarroako herrietan antzeko elkarteak sortarazteaz ezezik aktibitate politikoak prestatzeaz ere arduratu ziren. Horrela abendurako, Iruñeko elkartearen inaugurazioa zela eta, lehen ekitaldi publikoak antolatu zituzten Carmen Errazti, Katalina Alastuey, Jose Antonio Agirre eta Telesforo Monzonen partaidetzarekin.

Gobernu Zibileko erregistroaren arabera, 17 elkarte zeuden legalizaturik 1936.eko uztailaren altxamendu militarra iritsi zenerako. Hauez gain, aipatutako erregistroan agertzen ez diren bertze elkarte batzuk martxan zeuden. Errate baterako, Sesma, Aiegi, Baztan edo Obanoskoa. Guztiak kontutan hartuz, 22 tokian tokiko taldetara iritsi zen Nafarroako EAB¹⁴.

Zailagoa, berriz, dugu bazkideen kopurua azaltzea. Iturri fidagarrien ezak oztopatzen du hau. Policarpo Larrañagak kaleratutako zenbakia, 2000 bazkiderena, hauetatik 700 Iruñekoak izanen zirelarik,¹⁵ altuegitzat deritzogu, guk erabili ditugun Iruñeko bazkideen zerrendak 250 militante kopurura ez baitira iristen¹⁶. Militantziaren ezaugarriak hauexek izan zitezkeen: Adinari dagokionez, gehienak 20-24 urte bitartekoak, %32 ko kopurua osatuz. Hurrengo taldea 25-29koa zen, % 24 rekin, eta nabarmenki gutxituz 40 urtetatik gorakoak. Lanbideari begiratuz gero, gehien antzematzen dena da Iruñeko emakume eta Nafarroako bertze lekuetakoen arteko desberdintasuna. Hiriburuan emakume asko etxetik kanpo lanari loturik baldin badaude, herrietan ordea etxeke aktibitateei atxikiak daude gehienbat. Ardura honetatik at, gehien nabarmen-

14. Ikus gure tesia EL NACIONALISMO VASCO EN NAVARRA DURANTE LA II REPUBLICA, 30-33 orr. (EHU-UPV 1994) oraingoz argitaratu gabea.

15. Policarpo Larrañaga, EMAKUME ABERTZALE BATZA. LA MUJER EN EL NACIONALISMO VASCO. 58 or. Donostia, 1978.

16. Iruñeko Eusko Alkartasunaren egoitzan kontsultatu genituen bi zerrenda. Bata ordukoa, EABren bazkideetxe koadernoan edo antzekoa eta bertzea, zenbait urte beranduago militante batek egindakoa. Izenak errepikatzen dira. Lehena 211 izenen kopurura iristen bada bigarrena 223ra.

tzen den lanbidea maistrarena da. Honen ondoren jostunarena datorrelarik¹⁷.

Arestian aipatu dugun bezala, Nafarroako Gobernu Zibilaren erregistroak EAB-k izan zuen hedaduraren epeak eta tokien berri ematen digu. Honen arabera urterik emankorrena 1932.ekoa dugu. Lizarran eta Iruñean martxan zeuden taldeei, urte horretan bertze 13 erakunde berri gehitu baitzitzaizkien. Orduz geroztik, nahiz eta erakunde gehiago egituratu, bakarrik Martzillakoak (1933) eta Irurtzungoak (1934) aurkeztu zituzten haren Estatutoak Gobernuko erregistroan¹⁸.

Emakumezko erakunde hauen hedadura lanez Julia Fernandez Zabaleta eta Katalina Alastuey biziki arduratu ziren. Ikusi dugunez, hauek izan ziren Iruñeko elkartearen sortzaile eta zuzendaria eta lurralde osoko mailan ere, tokian tokiko elkarten bultzatzaileak. Nafarroan ez zen gauzatu, Gipuzkoan egin zuten bezala, inolako federazio edo erakunde amankomun bat baina eguneroko praktika politikoan Iruñeko emakume hauek lurralde osoko buruzagiak izan bailiran ihardun zuten. Aholku eta arautegiak hornitzeaz gain erakundetze lanetan laguntzaile bezala aritu ziren Nafarroan barrena.

Emakume Abertzale Batzaren bazkideek garatu zituzten lanak hiru ataletan sailka ditzakegu:

a) **Aktibitate politiko zuzenetan.** Arestian aipatu dugun bezala gero eta sarriago aritu ziren hizlari eta propaganda mailan. Lehen gizonei bakarrik zegokien ardura propagandistikoan emakumez osaturiko hizlari zerrenda oparo bat agertu zen. Bertzeaz bertze, hor aritu ziren Julia Fernandez Zabaleta eta Katalina Alastuey-rekin batera, Bittori Etxeberria, María Hermoso de Mendoza, Josefina Irujo, María Puy Ugarte, Laureana Tobes, María Ruiz de Oyaga... etab.

Garrantzitsua izan zen 1932.eko udaberrian, Euskal Estatu-tuaren aldeko kanpainan emakume hauek parte hartzea. Askotan

17. Datu hauek argitaratzeko osatu dugun Nafarroa osoko 361 militanteren kopurua oinarritzat hartu dugu. 1930 eta 1935.eko biztanlegoaren erroldak erabili ditugu beraien adina eta lanbideak ezagutzeko. Ikus gure tesia lehen aipatutakoa, 34-35 orr.

18. Nafarroako Gobernu Zibilaren Elkarten erregistroko legajo desberdin batzuk. Baita Valentín Artetaren "Aproximación al nacionalismo vasco en Navarra a través del Archivo Civil de Pamplona" ere. In I CONGRESO DE HISTORIA DE NAVARRA DE LOS SIGLOS XVIII-XIX y XX, Iruñea, 1986.

beraien mintzaldietan gai politiko orokorrak jorratzen zituzten arren, gehienetan, emakumeei zuzenduriko diskurtsu politikoa plazaratu zuten.

Barne ardura eta EAJ-ko biltzarretan ere 1933.az geroztik azaltzen zaizkigu emakume hauek. Errate baterako, 1934.eko bukaeran burutu zuten urte osoko biltzarrean Julia Fernandez Zabaleta Iruña Buru Batzarreko partaide hautaturik suertatu zen. Berrietasun honetaz, zenbait egun beranduago, Jose Agerre buruzagi eta idazle jeltzaleak horrela zioen Euzkadiko orrialdeotan:

“Justiziakoa zen emakume bat izendatzea. Ez bakarrik Iruñeko emakume abertzaleen artean dauden nortasun nabarmen eta ahaltsuengatik, kontutan hartzekoa den bere kopuru altuengatik baizik. Emakumeak alderdiak dituen aktibitate zehatz batzuetarako oso beharrezkoak dira eta iharduera honen gertueran haien ordezkapen batek parte hartzeari zuzena deritzogu”¹⁹.

Eusko Alderdi Jeltzaleak, Euskadi mailan, burututako biltzar nagusietan ere parte hartzen hasi ziren emakume hauek. Julia Fernandez Zabaletak Gasteizen, 1934.eko urtarrilaren 28.ean parte hartu zuen bitartean, Katalina Alastuey 1935.eko uztailaren 25 eta 1936.eko urtarrilaren 26.ekoetan aritu zen.

Dena den, ardura hauek ez zuten parekorik izan alderditik kanpoko bizitza politiko orokorrean. Egia erran, Eusko Alderdi Jeltzale nafarraren egoeraren ondorioa bertzerik ez zen. Urte hauetan Nafarroan gauzatu zen eskuindar eta ezkertiarren arteko polarizazio politikoa zela eta, euskal nazionalismoak ez zuen ordezkarririk lortu, ez Madrilgo Gorteetan, ezta nafar aldundian ere.

Salbuespen bakarra, Nafar Kontseilu administratiboarena izan zen. Erakunde honetan zenbait jeltzaleek, bai 1930-1931 bai 1935-1936 urteetan buruturiko hauteskundeetan, eserleku batzuk eskuratu zituzten, haien artean Katalina Alastuey zegoelarik. Bera izan zen Kontseilu hau, sortu zenetik, 1898an alegia, lehen partaide emakumezkoa. 1930.eko udan burutu zituzten bozketetan, Katalina Alastuey erakunde intelektualen bitartez ordekotzat hautatu zuten. Sail honen ordezkaria, Fernando Arvizu legegizon ospetsua, hil zelako bereganatu zuen Katalinak eskainua. Zoritxarrez aro horretan kontseilu honen bizitza politikoa antzua suertatu zen²⁰.

19. “Euzkadi”, 1935.eko urtarrilaren 6.a.

20. Nafarroako Artxibo Orokorra. Sail Administratiboa. Kontseilu administratiboaren leg.

b) Irakaskuntza mailan Euskal Eskolen bultzatzaileak.

II. Errepublikako lehen hilabeteotan, 1918 eta 1920 urteetan Eusko Ikaskuntzak buruturiko biltzarretan elebitasunaren alde hartutako erabakiak martxan ipini nahian erakunde euskaltzale guztiek lau foru aldundiei eta Ministerio de Instrucción Pública delakoari beraien eskaerak zuzendu zizkieten.

Erakunde ofizialen aldetik, maila teorikoan, elebitasunaren oinarri pedagogikoa onartzen bazen ere, gero instituzio publikoetatik ez zen inolako aurrepausorik gauzatzen euskarazko irakaskuntza bultzatzeko. Utzikeria eta zokoramendu honi aurre egiteko, elkarte euskaltzaleak aginte eta irakaskuntza publikoaren eremutik kanpo aritu ziren, Errepublikaren urteotan, bertze hezkuntza sare baten funtsak eraikiz.

Erregimen hau iritsi orduko, Gipuzkoan eta Bizkaian elebitasuna aitzinat eramateko zenbait saio martxan zeuden. Bizkaian “Escuelas de Barriada” deitutakoak, Gipuzkoan berriz, Tolosan eta Donostian, iniziatiba pribatuez bultzatu eta lagundurik, gaur egun ikastola bezala ezagutzen dugun mugimenduak bere lehen urratsak emanak zituen²¹. Azken bide hau izan zen abertzale nafarrek hartu zuten jokaera. Eta hau erabaki zelarik zenbait emakumerengan ezarri zen belaunaldi berrien euskalduntzearen eginbearra. Bertzeaz bertze, Petra Azpiroz, Miren Saizar eta Pilare Alba izan ziren Nafarroan sortutako lehendabiziko ikastoletako lehen irakasleak.

Euskal eskolak sustengatzeko erakunde abertzale guztiek baina, bereziki, hainbertze aldiz aipatu dugun Emakume Abertzale Batzako partaideek, jo eta ke, lan egin zuten. Honetaz jabetzeko nahiko esanguratsua da Iruñeko ikastola bermatzeko eratu zuten Patronatoko partaideei begirada bat botatzea. Zazpietatik bortz militante edota buruzagi jeltkide ziren, hauen artean Maria Viscarret “emakume” eta maistra zegoelarik.

Patronato honek idatziriko eskolen arautegian EABren baitan zeuden maistra berrizaleen ideien isladapena aise sumatzen da. Ikasgaietan Euskal Herriaren ezaguera (hizkuntza, historia...) landu beharrezkoa zen. Joera pedagogiko berrien arauari jarraituz

21. Arrien G. EDUCACION Y ESCUELAS DE BARRIADA DE BIZKAIA, Bilbo, 1987. Bakartxo Goikoetxea, Izarne Drabasa, “Tolosa: Gerra aurreko Ikastola 1922-1936” in CUADERNOS DE SECCION EDUCACION EUSKO IKASKUNTZA 1. zenb. 17-21 orr. Donostiakoari buruz, Eusko Ikaskuntzaren Artxiboan, Irakaskuntzaren leg.

umeen ariketek eta ekintzek ahalik eta atseginenak izan behar zuten memorismo hutsetik alde eginez. Aipatu dugun arautegi honen arabera irakasleek batez ere marrazkia, arbela eta mapak erabiliz erakutsi beharko zuten haurrak aspertu gabe gauzen nozioak entzumen eta ikusmenaren bitartez ikas zituzaten. Beren adinari zegoen irakasgai gehienak euskaraz ikasten bazituzten ere, arlo batzuk erdaraz hartzen zituzten, 9 urte bete arte amahizkuntza irakaskuntz bidea zelarik²².

Hiriburu nafarreko ikastolak bertze tokietako euskaltzaleei bidea erakutsi zien. Izan ere ondorengo urteetan bertze iniziatiba batzuk gauzatu ziren. 1933-34 ikasturtean Lizarran, Petra Azpiroz gazte leitzarraren gidaritzapean, Foruen plazan sortu zen bigarrena. Errepublikako azken urtean, Elizondon, Pilare Alba Loyarte andereño goizuetarrarekin jaio zen hirugarrena. Bertze lekuetan ere, Tafallan errate baterako, antzeko helburuak aurrera zihoazen... baina 1936.eko gerrateak, bertze gauza askorekin egin zuen legez, errotik ito zituen euskararen aldeko kimu berri hauek.

c) Folklore eta Herri kultur mailan buruturiko lanak.

Ez ziren euskararen irakaskuntzara mugatu orduko abertzaleen nekeak. Bertze lurraldeetan bezala, euskal nazionalismoa zabaltzeko asmoz oso garrantzitsutzat jo zuten antzerki zein folklore mailetan bultzatu behar zituzten ekimenak. Izan ere XIX. mendean Europako zenbait herritan gauzatutako pizkunde abertzalea zela medio antzerki nazional deitutakoak gorpuztu ziren. Norvegia eta Irlandako adibideak ditugu aipagarrienak. Herri hauetan bertako idazleek beren antzezlanen bitartez mugimendu nazionalistei beren laguntza eman zieten, leiendetan oinarritzen ziren obrak idatziz eta herriko tradizioak antzeztaraziz.

Euskal Herriaren kasuan oso goiz erabili zuten antzerkia. Batzutan euskalduntze prozesua errazteko asmoz, bertzetan tresna politiko propagandistikotzat hartuta. Sabino Aranak berak komunikabide eta liburuekin batera ideiak hedatzeko orduan antzerkia oso lanabes egokitzat jotzen zuen²³. Jarraitzaile jeltzaleek ideia honi eutsiz, garrantzi handia eman zioten arlo artistiko honi bere eginbehar propagandistikoetan.

22. Reglamento de las Escuelas Vascas de Pamplona in Eusko Ikaskuntzaren Artxiboan. Irakaskuntzaren leg.

23. Euskal nazionalismoaren sortzaileak ikuspuntu hau bere artikuluetan azaltzeaz gain, lan batzuk antzezteko izkiriatu zituen. Aipagarrienak “Libe” eta “De fuera vendrá”. Ikus honen berrargitarapen, hitzurre eta oharrak in SABINO

Euskal folkloreak antzeko errola bete zuen. Dantzak eta euskal abestiek antzerki lanek izan zezaketen mezua ez izan arren herriaren adierazpideak ziren. Honen ondorioz, eta beti emakumeak aitzindari gisa, su eta gar ekin zioten orduko jeltzaleek bertako folklorea lantzeari. Emaitzak berehala ugaltu ziren eta EAB sortzen zen lekuetan laster euskal dantzek oihartzun zuzena izaten zuten. Iruñetik abiatuz, horrela gertatu zen Nafarroako bertze gune abertzaleetan. Nafarroako hiriburuan adibide aipagarrienak izan arren (“Jostari” antzerki taldea, Iruñeko “Eusko Abesbatza”)²⁴ ez ziren makalak Baztan, Leitza, Lizarra, Tafallan... lortutako emaitzak. Herri hauetan dantza taldeak sortarazi zituzten militante jeltkideek bertako dantzak baita bertze lurralde euskaldunetakoak ere ikas zituzten.

Dantza talde hauetan, gizonezkoak zein emakumezkoak aritzen baziren ere, azken hauek bere gain hartu zuten gazteei irakastearen ardura, kultur herrikoiaaren transmisioa. “Gaztetxu” deitutako erakundearen bitartez bermatzen saiatzen ziren hain zuzen ere. Neska eta mutiko gazteekin emakumeek egindako eguneroko lan isilak, noizbehinka jaialdi erraldoietan taularatzen zen. Hauxe izan zen urtero urtarrilaren 6.eko festaren inguruan antolatzen zutena. Egun horretan makina bat gaztetxuk parte harzen zuten Jai-Alai pilotalekuan buruturiko itzelazko jaialdian. Hau ikusita, jende gutxik erranen zuen euskal kultura arriskutan izan zitekeenik.

Baina jakina denez, denbora gutxi barru, egoera itxaropentsu hau pikutara joan zen Espainiako militar eta eskuindarrek eragindako gerrari esker. Gainerako alderdiekin gertatu zen bezala, emakumeen lanak, erakundeak, lokalak...etab. ixilarazi zituzten. Batzuek erresistenzia eta laguntzako aktibitatei ekin zieten bitartean,²⁵ gehienek etxeratu behar izan zituzten beren ideia eta aktibitateak behin betiko. Aginte berriek ezarritako errepresioak askorengan izan zuen eragin zuzena. Lehen aipatu dugun bezala, hauxe izan zen Katalina Alastuey eta Julia Fernandezek patua. Iruñeko

ARANA GOIRI: DE FUERA VENDRA... COMEDIA EN TRES ACTOS
TEATRO NACIONALISTA VASCO. Donostia, 1982.

24. Ikus gure lanak : “Euskal Nazionalismoak herri nortasunaren eraikuntzan folkloreari emandako zeregina (1931-1939)” eta “Kultura tradizionalaren gaurkotze saio batzuen berri. Jostari antzerki eta folklore taldea” in CUADERNOS DE ETNOLOGIA Y ETNOGRAFIA DE NAVARRA 55. eta 57. zenb., Iruñea, 1990, 1991.

25. Ikus gure “Erregimen frankistaren aurkako zenbait ekintza eta erakunderen berri” in BOLETIN DEL INSTITUTO GERONIMO DE UZTARIZ, 4. zenb.

udalak, beren lanpostuez desjabetu zituen Burgosko gobernuaren dekretuak jarraituz.

Jazarkundea ez zen aginte politikoetara eta gerra garaietara mugatu. Elizako sektore batzuk ere saiatu ziren, urte aunitz beranduago Nafarroa bezalako gizartean izan zitekeen zigor lotsagarrienetako bat, eskumikuarena alegia, emakume hauei ezartzen. Izan ere, Julia Fernandez Zabaletari, 1951.eko ekainean Pablo Gurrupide bikari orokorra eta Enrike Delgado Gomez apezpikuak zigor hau ezarri nahi zioten. Gaztigu hau protesta herrikoa zela medio bertan behera utzi bazuten ere nahiko adierazgarria izan zen agintari eliztar hauen joera eta gorrotoak azalarazteko²⁶.

Emakume hauek goimailako aginte politiko zein eliztarren aldetik, eragozpen eta eraso aunitz pairatu behar izan bazituzten ere, beti inguruko euskaltzale eta abertzaleen laguntzaren beroa izan zuten. Lanetik bidaliak izan zirelarik jende askok bere umeak haiengana bidali zituzten Julia eta Katalinak ogibidea izan zezaten. Era berean, biak hil zirelarik, beraien hiletak zanpaturik zegoen euskal abertzaletasunaren kontzientzia eta oroimenaren egundoko adierazpide bihurtu ziren.

26. Ikus “Excomuni3n en Pamplona” in “Euzko Deya” (Mexikokoa) 1951.eko abuztuaren 25.eko alea.